

EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA: DOKTOREGO AURREKO KONTRATATUEN MUGIKORTASUNA (EGONLABUR PROGRAMA)

Deialdiaren xedea:

Laguntzak ematea beka aplikatzen den zentroetan ez beste batzuetan doktorego aurreko egonaldiak egin ditzaten prestakuntza bidean dauden ikertzaileek.

Onuradunak:

Laguntzak doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko Eusko Jaurlaritzaren doktorego aurreko programaren onuradunek bakarrik eska ditzakete, edozein modalitatetan dihardutela ere. Laguntza horiek lortu ahal izateko, ezinbestekoa da ikertzaileak aktibo eta lehenengo, bigarren edo hirugarren berritze aldian egotea.

GARRANTZITSUA: Doktorego aurreko laguntzen gainerako onuradunek beren kontratuak finantzatzen dituzten erakundeei dagozkien deialdietan aurkeztu behar dituzte eskaerak.

Diru laguntzen ezaugarriak:

Laguntzak eska daitezke hiru hilabeteko egonaldiak egiteko unibertsitateetan, ikerketa zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I+G+b-ren esparruan diharduten enpresetan, atzerrikoak zein estatukoak izan, betiere aplikazio zentroa ez den udalerrri batean badaude eta egonaldiak bizilekua aldi baterako aldatzea badakar. Egonaldiak 2019. urtean egin behar dira.

Eskaerak aurkezteko epea:

2018ko azaroaren 30 arte.

GARRANTZITSUA: eskatzaileek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean.

Eskaera aurkezteko era:

Eskaerak online bidez bakarrik bete daitezke esteka honetan:

http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/diru_laguntza/2018/egonlabur/

Eskaera bete ondoren, hautagaiak bere eskaera elektronikoki edo paperean erregistratu behar du. Erregistro elektronikoa hautatuz gero, ziurtagiri elektronikoa erabili beharko da (NAN elektronikoa, ONA txartela, FMNTaren pertsona fisikoaren ziurtagiria).

Izapideak paper euskarrian egitea aukeratuz gero, aplikazioak sortzen duen eskaera orria inprimatu egin beharko da, eta eskatzaileak sinatu beharko du. Paper formatuko eskaera helbide honetara igorri behar da:

*Eusko Jaurlaritza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Zientzia Politikarako Zuzendaritza
Erreferentzia: Doktorego aurreko egonaldiak
K/ Donostia, 1
01010 Gasteiz*

Eskaera Zuzenean herritarrentzako arreta zerbitzuaren bulegoetan ere aurkez daieke; zehazki, Bizkaiko bulegoan (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo), Gipuzkoakoan (Andia 13, 20003 Donostia) eta Arabakoan (Ramiro de Maeztu 10, behea, 01008 Gasteiz).

Eskaera posta bulegoetan aurkeztekotan, gutun azala irekita eraman beharko da, eskaeraren goiburuan eskaera posta bulegoan zein egunetan eta zein ordutan sartu den ager dadin.

UPV/EHUko DOKTOREGO AURREKO KONTRATATUAK:

Kontratatuak eskaera erregistro bulego hauetan formaliza dezakete:

- **01 Erregistro Bulegoa, Arabakoa** (Arabako Campuseko Errektoreordetza: Izardui komandantearen kalea 2, 01005 Gasteiz).
- **02 Erregistro Bulegoa, Gipuzkoakoa** (Ignacio M^a Barriola ikasgelategia: Elhuyar plaza 1, 20018 Donostia).
- **03 Erregistro Bulegoa, Bizkaikoa** (Errektoregoa, Sarriena, z.g., 48930 Leioa).
- **84 Erregistro Bulegoa, Bizkaikoa** (Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbo).

GARRANTZITSUA: eskaera hau aurkezteko **ez** da behar UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura.

Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzeritik: 00 34 945 018000

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/diru_laguntza/2018/egonlabur/